

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

6. astea (2024ko otsailaren 5etik 11ra)

Gripe-birusaren zirkulazioak behera egin du berriro aste honetan. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da eta bronkiolitis diagnostikoek pixka bat gora egin dute.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 428,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (468,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak beherantz jarraitzen du eta bronkiolitisarenak gora egin du aste honetan.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 55 lagin jagoleen % 63,6 baieztatu da, 16 gripe-birus (positibotasuna % 29,1) eta 3 ABS (positibotasuna % 5,5) atzeman direlarik. Ez da SARS-CoV-2rik detektatu.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 15,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,2/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 77 SARS-CoV-2, 213 gripe-birus eta 51 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 428,8 kasukoa izan da (468,2/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 341,1/100.000 izan da Araban, 440,8/100.000 Bizkaian eta 450,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1972,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 749,4 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazioa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 6. astea	Tasa 5. astea	Tasen arrazioa (% 95 KT)
Arabako ESI	374,1	390,6	0,96 (0,88-1,04)
Arabar Errioxako ESI	536,8	443,1	1,21 (0,84-1,75)
Barakaldo-Sestaoko ESI	370,1	397,2	0,93 (0,82-1,06)
Barrualde-Galdakaoko ESI	469,6	498,8	0,94 (0,88-1,01)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	469,7	530,6	0,89 (0,83-0,95)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	452,5	515,3	0,88 (0,79-0,97)
Uribeko ESI	354,6	392,6	0,90 (0,82-1,00)
Bidasoako ESI	414,1	423,1	0,98 (0,84-1,14)
Debararrenako ESI	446,4	500,8	0,89 (0,77-1,04)
Debagoienako ESI	372,1	370,6	1,00 (0,84-1,20)
Donostialdeako ESI	425,9	482,3	0,88 (0,82-0,95)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	554,9	574,8	0,97 (0,86-1,09)
Tolosaldeako ESI	429,4	491,6	0,87 (0,74-1,03)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 18,8 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (26,6/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 273,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (256,5/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 55 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 63,6 baieztatu dira. 16 gripe-birus (5 AH1pdm09 eta 11 AH3) eta 3 ABS atzeman dira. 7 errinobirus eta 7 urtaroko koronabirus ere detektatu dira, baina SARS-CoV-2rik ez.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak gora egin du eta % 29,1ean kokatu da (% 21,0 aurreko astean), eta ABSrena % 5,5era igo da (% 1,6 aurreko astean). Errinobirusaren eta urtaroko koronabirusaren positibotasuna % 12,7koa izan da (% 6,5 eta % 8,1 aurreko astean, hurrenez hurren).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	6. astea		5. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	16	29,1	13	21,0	226	21,0
SARS-CoV-2	0	0,0	6	9,7	64	6,0
ABS	3	5,5	1	1,6	87	8,1
Metaneumobirus	5	9,1	4	6,5	36	3,3
Parainfluenza	1	1,8	0	0,0	19	1,8
Adenobirus	1	1,8	1	1,6	26	2,4
Errinobirus	7	12,7	4	6,5	221	20,6
Urtaroko CoV	7	12,7	5	8,1	51	4,7

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 15,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (15,2/100.000 aurreko astean), 13,7/100.000 emakumeetan eta 18,1/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 47,2 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 25,7 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 15 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako adin-taldeetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin du berriro eta % 14,5ean kokatu da aste honetan (% 20,0 aurreko astean) eta SARS-CoV-2rena % 6,5era igo da (% 3,4 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 5,4ra jaitsi da (% 11,6 aurreko astean) eta metapneumobirusarena % 13,6koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	6. astea		5. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	279	6,5	266	3,4	5684	10,6
Influenza	282	14,5	265	20,0	5360	21,5
ABS	242	5,4	225	11,6	4468	16,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 77 SARS-CoV-2, 213 gripe-birus eta 51 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 213 gripe-birusetatik, 143 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 35 A(H3), 33 A(H1)pdm09 eta 2 B motakoak. 2023/40 astetik 5746 detekzio erregistratu dira, 5732 (% 99,8) A motakoak eta 14 (% 0,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1744 birusetatik, 368 (% 21,1) A(H3) eta 1376 (% 78,9) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, urtarrilean, PCR bidez azterturiko SARS-CoV-2ren lagin positiboak % 23,5 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 90,1), BA.2.86 (% 3,6) eta JG.3 (% 1,6) izan direlarik.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 6. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 7,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (11,8/100.000 aurreko astean); 10,4 gizonetan eta 6,0 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 36 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (42 ospitaleratu aurreko astean), 20 gizon eta 16 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 80,6 60 urtetik gorakoa zen.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 6. astean, COVID-19 8 kasu berri erregistratu dira EAeko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (11 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 7 izan da, aurreko astean baino 2 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko otsailaren 14an

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**